

aleka

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2024ko abendua

02-09

SAN ESTEBANEN
ETORKIZUNA

10-11

ETXEBIZITZA EREDU
BERRIA TOLOSAN


12-13

AZKEN BERRIAK

14

2025EKO EGUTEGI
FISKALA

ETORKIZUNEKO
SAN ESTEBAN
IRUDIKATUZ





SAN ESTEBAN

U

nean uneko proiektuak ez ezik, etorkizunera begirakoak ere ari da lantzen Tolosako Udala. San Esteban auzoarena da adibide nagusietako bat. Auzo dinamikoago eta erakargarriagoa egitea da asmoa; betiere, bere nortasuna errespetatuta, hirigunea eta landa-eremuak behar bezala integratuta, eta, tolosarren eta, bereziki, auzoko bizilagunen beharrei ere erantzunda.

Horretarako, baina, ezinbestekoa da HAPOa (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra) aldatzea. Urriaren amaieran, herritarren aurrean aurkeztu dira etorkizuneko San Esteban auzorako asmoak, baita HAPOa aldatzeko urratsen xehetasunak ere. Lantalde teknikoak Aurrerakina eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa landu ditu jada.

Ondorengo orrialdeetan, landutako informazioa aletuko dugu, ideia nagusiak azaltzeko asmoz.

El Ayuntamiento de Tolosa ha presentado recientemente los criterios y objetivos del futuro barrio de San Esteban. Para ello, es indispensable modificar el PGOU (Plan General de Ordenación Urbana).

El equipo técnico ha elaborado el Documento de Avance y el Documento Inicial Estratégico, información que se desgrana en las próximas páginas.



Zer da HAPOa, zer proposatzen zuen?

2009an, Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) onartu zuen Udalak: udalerriaren erabateko antolamendua aurrera eramateko oinarrizko tresna nagusia da, eta arautu egiten ditu eta udalerri osoko lurzoruen eta eraikinen erabilera. Udalerriko eremu fisikoan zer, non eta zein neurritan egin daitekeen arautzen du. San Estebanen, zehazki, 1.011 etxebizitza aurreikusten zituen Planak.

Diagnostiko eta Aurrerakinaren idazketa

Oinarri gisa hartuta 2013ko parte hartzeko saioetan bizilagunekin adostutako helburuak eta azken urteetan egindako plan eta azterlanak, Udalak, 2019an, martxan jarri zuen eremuaren aldaketa puntualaren Diagnostiko eta Aurrerakinaren idazketa. Beste hainbat azterketa ere sartu dira prozesu horretan: ikuspegি sozio-demografikoa, ikuspegি juridikoa, arkitektura-ikuspegia eta ondarea; eta ingurumen-ikuspegia eta eragin sektorialak. 2022an, beriz, oinarrizko irizpideak finkatu ziren, abiapuntu izan zitezen San Estebango HAPOaren berrikuspenean eta etorkizuneko plangintzan; bai bizigune berriari, baita gaur egungo auzoari dagozkionak ere.

**Auzo dinamikoago eta
erakargarriagoa egitea
da asmoa; betiere, bere
nortasuna errespetatuta.**

¿Qué es el PGOU, y qué contemplaba?

En 2009, el Ayuntamiento aprobó el PGOU, un instrumento básico para llevar a cabo la ordenación integral del municipio. En San Esteban, concretamente, contemplaba 1.011 viviendas. Posteriormente, en 2013, se llevó a cabo un proceso participativo con los/las vecinos/as y representantes municipales, para definir los objetivos específicos del barrio. Ya en 2019, se puso en marcha la redacción del Diagnóstico y Avance de la modificación puntual del PGOU, partiendo de los objetivos acordados en el proceso participativo, y en 2022, se fijaron los criterios básicos a partir de los cuales partirá la revisión del PGOU y el planeamiento futuro.

EGUNGO AUZOAREN ETA BIZIGUNE BERRIAREN OINARRIZKO IRIZPIDEAK

¿CUÁLES SON LOS CRITERIOS?

1

Etxebitzta-kopurua:

HAPOak 1.011 etxebitzta eraikitza aurreikus-ten zuen. Aurreko agintaldian, 650era jaitsi zen zifra hori, baina bizilagunen iritzia entzun eta kontuan hartuta, egungo udal gobernuak 450 etxebitztara jaitsi du kopurua.

Número de viviendas: El PGOU contemplaba la construcción de 1.011 viviendas, que, en la anterior legislatura se redujeron a 650. No obstante, y tras escuchar y tener en cuenta la opinión de los/as vecinos/as del barrio, el actual gobierno municipal ha reducido el número de viviendas a 450.

2

Ingurumen-harresi berdea:

berdeguneak sortzea, eta horietan ibilbideak egitea. Horrekin batera, langunearekin trantsizio bat egin nahi da.

Muralla verde ambiental: crear zonas verdes, y recorridos por ellas, para una transición con la zona industrial.

3

Elosegi parkera sarbidea:

egungoaz gain, beste sarbide bat egitea.

Parque Elosegi: habilitar un nuevo acceso.



4 Egungo auzoa:

nagusiki, gaur egun auzoan dauden etxebizitzak mantentzea.

Barrio actual: principalmente, mantener las viviendas actuales.

5 Plaza:

gaur egungo auzoa eta etorkizuneko etxeak lotuko dituen hiri-plaza bat sortzea, bi eremuak erabat bananduta gera ez daitezen.

Plaza: crear una plaza urbana que conecte el barrio actual con las nuevas casas, para que ambas zonas queden debidamente cohesionadas.

6 Aparkaleku berriak:

errepiide alboko aparkalekuez gain, solairu bat baino gehiagoko eraikin bat egitea.

Nuevos aparcamientos: además de los aparcamientos junto a la carretera, construir un edificio de más de una planta.

7 Berdegune berriak sortu eta daudenak batzea.

Crear **nuevas zonas verdes**, y unir las existentes.

8 Ferialekua ere leku berean mantentza, behar bezala egokituta.

Mantener el **recinto ferial** en el lugar actual, debidamente acondicionado.

9 Erabilera publikoko ekipamendua

sortzea, eta haien erabilera nahastea: bulegoak, saltokientzako lokalak, zerbitzuak...

Creación y mezcla de usos de equipamientos de uso público: oficinas, locales comerciales, servicios...

10 Trenaren azpiko pasabidea handitzea:

trenbideaz bestalde Batxiler Zaldibia kalera daramaten bi pasabide daude, eta horiek batu eta oinezko pasabide seguro bat egokitu ahal izatea da irizpidea. Adibide bat: Donostiako Justizia Jauregiaren eta tren-geltokiaren arteko pasabidea.

Ampliación del paso bajo el tren: existen dos pasos bajo las vías del tren que llevan a la calle Batxiler Zaldibia, y el criterio es poder unirlos y adecuar un solo paso que sea más seguro.





BI ANTOLAMENDU-AUKERAK

LAS DOS OPCIONES DE ORDENACIÓN

Irizpide horiek guztiak kontutan hartuta, ordenazio-aukera bat baino gehiago landu ditu lantalde teknikoak. Bizilagunekin egindako parte-hartze prozesuaren ostean, bi dira aurrera egin duten aukerak: 3.1 eta 3.2 aukerak.

Bi aukeretan, ardatz nagusi bat sortzen da ferialekuari paraleloan, eta aparkaleku-eraikin bat antolatzen da ferialekuaren jarraian. Plaza-espazio bat sortzen da gaur egungo etxebizitzen, Zuberoaren, eta etxebizitzaz berrien artean, eta behe oinean ekipamendu-erabilera ematen zaio gertukoena den etxebizitza-eraikinari. Bide historikoa mantentzen da, eta landa-gunerako trantsizioa errespetatzen da.

El grupo técnico ha trabajado dos alternativas para el diseño del barrio, alineados con los resultados obtenidos en el proceso de participación ciudadana. En ambas, se crea un eje central paralelo al ferrial, y se dispone un edificio de aparcamientos junto al ferrial. Se crea un espacio de plaza entre las viviendas actuales, Zuberoa, y las nuevas viviendas, y en planta baja se da un uso de equipamiento al edificio de viviendas más cercano. Se mantiene el camino histórico, y se respeta la transición hacia la zona rural.


3.1

ALTERNATIBA

3.1 alternativak Bonberenea mantentzea proposatzen du. Planteamendu horrek Bonberenearen gizarte- eta kultur-balioa aitortzen du, eta errespetatu egiten du erreferentzia-puntu gisa eta kultur jardueren gune gisa betetzen duen eginkizuna.

Alternatiba honen bidez, Bonberenea egokitutegi litzateke egungo legedia eta eskakizun teknikoak betetzeko, eta plaza batek inguratuko luke.

Bi aldaera jasotzen ditu eraikin berrien altuera lotuta: lehen aukeran, eraikinen altuera guztiak berdinak dira; bigarrenean, aldiz, hirigunetik gertuago dauden eraikinak altuagoak dira, eta landa gunera gerturatu ahala, baxuagoak.




La alternativa 3.1 propone mantener Bonberenea, y respeta su papel como punto de referencia de actividades culturales. Bonberenea se adaptaría para cumplir con la legislación y requisitos técnicos actuales, y se plantea una plaza a su alrededor.

Asimismo, la alternativa recoge dos variantes en cuanto a la altura de las nuevas edificaciones. En la primera variante, todas las alturas de los edificios de viviendas son iguales. En la segunda, los edificios más cercanos al núcleo urbano son más altos, y la altura de los edificios baja a medida que se acercan al núcleo rural.



BEHE OINA - PLANTA BAJA



LEHENDIK GAGOEN BIZITEGIA
EDO FINKATZEN DENA
RESIDENCIAL EXISTENTE
O QUE SE CONSOLIDA

BIZITEGI PROGRAMATUA
RESIDENCIAL PROGRAMADO

BERDEGUNEA (SO-TS)
ZONA VERDE (SG-SL)


PLAZA
PLAZA

SARBIDE BERRIAK
NUEVOS ACCESOS

JARDUERA EKONOMIKOA
ACTIVIDADES ECONÓMICAS

HIRUGARREN SEKTOREA
TERCIARIO

TIPO OINA - PLANTA TIPO




3.2


ALTERNATIBA

3.2 alternatibak Bonberenea eraistea planteatzen du. Hala, aukera honek jasotzen du eraikin berri bat eraikitzea orain zirkua dagoen eremuan, musika-areto gisa erabiltzeko. Horrela, Bonberenea dagoen lekuan etxebizitza-eraikinak leudeke.


3.1 aukeran bezala, alternatiba honetan ere eraikinen altuerari lotutako bi aldaera berberak daude: eraikin berri guztiekin altuera berdina izatea, edo bi aldeetako etxebizitzetara gerturatu ahala, baxuagoak eraikitzea.



BEHE OINA PLANTA BAJA




TIPO QINA PLANTA TIPO



- LEHENDIK GAGOIN BIZITZIA
EDO FINKATZEN DENA
*RESIDENCIAL EXISTENTE
O QUE SE CONSOLIDA*
 - BIZITZEI PROGRAMATUA
RESIDENCIAL PROGRAMADO
 - BERDEGUNEAK (SO-TS)
ZONA VERDE (SG-SL)
 - PLAZA
PLAZA
 - SARBIDE BERRIAK
NUEVOS ACCESOS
 - JARDUERA EKONOMIKOA
ACTIVIDADES ECONÓMICAS
 - HIRUGARREN SEKTOREA
TERCIARIO

La alternativa 3.2 propone derribar Bonberenea. Se construiría una nueva construcción con uso de sala musical, que se ubicaría en la zona donde actualmente está el circo. Asimismo, en el lugar del actual Bonberenea, se construirán edificios de viviendas.

Al igual que en la anterior alternativa, se presentan las dos mismas variantes ligadas a la altura de los edificios: en una de ellas, se mantiene una altura homogénea entre todos los edificios; en la otra opción, se reduce la altura de las viviendas conforme vayan acercándose a las casas actuales.



ETA ORAIN, ZER?

PRÓXIMOS PASOS


Aurrerakin-dokumentua eta horri lotutako ingurumen-txosten Eusko Jaurlaritzara bidalita daude jada, hark onets ditzan.

Herritarren iradokizunetarako epea ere ireki da. Horretarako, Liburu Zuria eskura dago UDATEn, ekarpenak egin nahi dituen ororentzat. Abenduaren 31ra arte izango da iritzia emateko aukera.

Bide ezberdinatik jasotako iradoki-zunak txosten batean jaso, eta ondoren horiek erabiliko dira HAPOaren Aldaketa Puntuala idazteko oinarri izango diren irizpide eta helburuak osatzeko eta egokitzeko. Irizpide eta helburu horiek aurkeztuko dira herritarren parte-hartze prozesuaren hirugarren fasean, eta ondoren, Udal-batzak onartu beharko ditu.

El documento de Avance ha sido remitido al Gobierno Vasco para su aprobación, y se ha procedido a la exposición pública y fase de sugerencias. El Libro Blanco para realizar aportaciones está disponible en UDATE, hasta el 31 de diciembre.

Al final de la fase 2, las sugerencias recibidas por las distintas vías se recogerán en el informe de la Fase 2, que se utilizará para completar y adecuar las Alternativas de Avance. A partir de entonces, se abrirá la fase 3, en la que se prevé una sesión final que servirá para definir los Criterios y Objetivos para la redacción de la Modificación Puntual del PGOU, que posteriormente se deberá aprobar por el Pleno municipal. baxuagoak eraikitzea.



BELAUNALDIARTEKO ETXEBIZITZA-PROIEKTU BAT TOLOSAN?

Tolosako
Udalak izaera
komunitarioko
belaunaldiarteko
etxebizitza-proiektu
bat sortuko du
lurramendin.

P

aper kaleko biribilgune-
aren alboan egingo da,
gaur egungo etxeen eta
lurramendi kaleko beste eraikinaren
arteko orubean. Bertan, aurreikusita
dago alokairu-erregimeneko babes
ofizialeko etxebizitzak egitea, baina
eredu berritzaleak jorratuz egin
nahi ditu udalak.

Adin-tarte ezberdinak bi
kolektibori –gazteei eta adinekoei–
leku egin, eta elkarren arteko
elkarbizitza sustatzea da nahia. Bi
helbururi aurre egin nahi die udalak:

alde batetik, gazteen emantzipazio-
beharrari beste aukera bat ematea;
eta, bestetik, adinekoentzako
zaintza-ikuspegia bilduko duen
etxebizitza-eredu bat sustatzea.

Herritarrek egindako eskarietako
bat da eredu berriak bilatzearena.
Zehazki, Herritarren Batzarrak
egindako gomendioetako bat izan
zen, eta Gazteparte prozesuan
ere bide hori jorratzeko eskaera
egin zuten 18 eta 30 urte bitarteko
gazteek.




Proiektu arkitektonikoaz haratago, ordea, herritarak engaiatu nahi ditu udalak proiektua modu integralean diseinatzeko orduan, hala, elkarrekin definitzeko izaera, funtzionamendua, espazioen erabilera, sarrera-baldintzak, eta bestelako zenbait ezaugarrí.

Horretarako, otsail eta martxo artean parte-hartze prozesu bat abiatuko da, gutxienez lau saio izango dituena. Aurrerago, udaleko webgunearen eta sare sozialen bidez emango da horren berri, baita komunikabideetan ere.

El Ayuntamiento de Tolosa tiene previsto poner en marcha un proyecto de vivienda intergeneracional en Iurreamendi, de carácter comunitario. El objetivo es dar cabida y promover la convivencia entre dos colectivos de edades diferentes: jóvenes y personas mayores. Son dos los objetivos: conceder una oportunidad más a la emancipación; y promover un modelo de vivienda con enfoque de cuidados para las personas mayores. Se trata de una demanda ciudadana, proveniente de personas de diferentes edades.

Más allá del proyecto arquitectónico, el ayuntamiento quiere implicar a la ciudadanía en el diseño integral del proyecto, para definir conjuntamente su naturaleza, funcionamiento, usos de los espacios, condiciones de acceso y otras características.

Para ello, entre febrero y marzo se abrirá un proceso participativo de cuatro sesiones. Más adelante se informará de ello a través de la web municipal y de las redes sociales, así como en los medios de comunicación.



**Interesa bazenu, Etxebizitza
Sailarekin jar zaitezke
harremanetan, helbide
honetara idatzita:**

En caso de tener interés en la iniciativa, puedes ponerte en contacto escribiendo a:

etxebizitzak@tolosa.eus

AZKEN BERRIAK

Actualidad

GAZTEEN INAUTERIETAKO JAI-EREDUA AZTERGAI

El Foro de la Adolescencia analizará este año el modelo festivo del Carnaval de jóvenes de entre 14 y 18 años. Uno de los principales objetivos del proceso es recoger propuestas e ideas para reforzar la oferta del programa festivo para adolescentes.

Un total de 652 alumnos y alumnas de entre 3º de ESO y 2º de Bachillerato de los tres centros han tenido la oportunidad de responder un cuestionario, y realizar propuestas, ideas que están desarrollando ahora 40 personas seleccionadas por sorteo cívico.

Gazteen parte-hartza sustatzen jarraituko du Tolosako Udalak aurten ere. 14 eta 18 urte bitarteko gazteen inauterietako jai-eredua aztertuko du aurten Nerabeen Foroak. Jaietako egitarauan nerabeentzako eskaintza indartzeko proposamen eta ideiak jasotzea da prozesuaren helburu nagusienetako bat.

Galdetegi bat erantzun, eta proposamenak egiteko aukera izan dute hiru ikastetxeetako 652 ikaslek, DBH 3tik batxilergoko 2. mailara artekoek, hain zuzen. Zozketa zibikoz aukeratutako 40 ikasle ari dira orain ideia horiek garatzen. Urtea amaitzerako, proposamen landuak aurkeztuko dizkio Nerabeen Foroak udalari. Guztia koordinazio-mahaian aztertuko da gero, aurtengo jaiei begira, batzuk pixkanaka txertatzen hasteko.



Haurren aisiaidirako gune berria du Tolosak. Larramendi kalean, haur-parketik hurbil, kirol anitzeko espacio bat sortu, eta mahai-teniseko mahaia jarri da. Parte-hartze bidezko aurrekontuen iazko prozesuaren

KIROL ANITZEKO ESPAZIO BERRIA ETA KALISTENIA GUNEAK, ERABILGARRI

bozketa herritarrek aukeratutako proiektuetako bat da, hain zuzen. Bestalde, Norvegiaren lorategiak parkean eta Zumardiaundian kalistenia gune bana jarri da, gisa honetako lehenak Tolosan.


Tolosa cuenta con un nuevo espacio de ocio infantil. En la calle Larramendi, cerca del parque infantil, se ha creado un espacio multideportivo, y se ha instalado una mesa de tenis de mesa. Se trata de uno de los proyectos elegidos por la ciudadanía en la votación del proceso de presupuestos participativos del pasado año. Por otro lado, en el parque de Norvegiaren lorategiak y en Zumardiaundia se han instalado sendas zonas de calistenia, las primeras de este tipo en Tolosa.

UDATEN HITZORDUA WEBGUNETIK ESKATZEKO AUKERA, MARTXAN

Udaten, Tolosako Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan, hitzordu presentziala webgunetik eskatzeko aukera eskainiko du aurrerantzean tolosa.eus atariak. Aukera berri honek udal-tramiteak azkarra eta erosago egitea du helburu, itxaronaldiak saihestuz eta prozesua eraginkorragoa eginez.

Webgunean, orrialdearen azpialdean, eskuineko aldean 'Hitzordua eskatu' botoia aurkituko duzu. Botoi hori sakatu ondoren, galdelegi bat bete beharko da. Formularioa bete, eta 24 orduko epean (egun baliodunetan) formularioan jarritako telefono-zenbakira deituko du

udalak, egindako konsultari erantzuteko edo hitzorduaren eguna eta ordua berresteko.



Tolosa.eus ofrecerá a partir de ahora la posibilidad de solicitar desde su página web una cita presencial en Udate, el Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Tolosa. Una vez realizada la petición de cita previa a través de la web, el ayuntamiento se pondrá en contacto en 24 horas para concertar fecha y hora, y enumerar la documentación necesaria para realizar el trámite deseado.



47 ERAIKIN ONDAREAREN UDAL KATALOGOAN SARTZEKO AZTERKETA, ABIAN

Tolosako Udalak urrats garrantzitsu bat eman du herriko arkitektura-ondarea babesteko bidean: Udal Katalogoa berritzeko prozesuari hasiera eman dio. Horretarako, baina, katalogoa sartu beharreko eraikinen azterlan zehatz bat egin behar da, babesik behar ote duten, eta behar izatekotan zer mailatkoa behar duten erabakitzeko.

47 eraikin ebaluatuko dira, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko udal-arkitektoen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondarearen Zuzendaritzaren gomendioak jarraituz. Txalat izaerako 19 eraikin, 25 bizitegi-eraikin eta hiru eraikin instituzional dira aztertuko direnak. Zerrenda ikusgai dago tolosa.eus-en.

Paso importante en la protección del patrimonio arquitectónico de la localidad: se ha iniciado el proceso de renovación del Catálogo Municipal, para lo cual es necesario un estudio detallado de las edificaciones a incluir en el Catálogo, con el fin de determinar si requieren protección, y en qué grado. En total, se evaluarán 47 edificios, según las recomendaciones del Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa. La lista está expuesta en tolosa.eus.

2025eko EGUTEGI FISKALA

> URTEAN BEHIN ORDAINTZEN DIREN ZERGAK TRIBUTOS DE PERIODICIDAD ANUAL

Ibilgailuen zerga Impuesto sobre vehículos

Martxoak 1 - Apirilak 15
1 de marzo - 15 de abril

Ondasun higiezinen zerga Impuesto sobre bienes inmuebles

Maizatzak 15 - Ekainak 30
15 de mayo - 30 de junio

Jarduera ekonomikoen zerga Impuesto sobre actividades económicas

Urriak 1 - Azaroak 10
1 de octubre - 10 de noviembre

Hondakin bilketaren tasa Tasa de recogida de residuos

Ekainak 1 - Uztailak 7
1 de junio - 7 de julio

Ibilgailuen sarbide eta pasabideen tasa Tasa de entrada vehículos y vados

Ekainak 1 - Uztailak 7
1 de junio - 7 de julio

Kutxazain automatikoen tasa Tasa de cajero automático

Ekainak 1 - Uztailak 7
1 de junio - 7 de julio

Autotaxi Autotaxi

Ekainak 1 - Uztailak 7
1 de junio - 7 de julio

Baratzak Huertas

Urriak 1 - Azaroak 10
1 de octubre - 10 de noviembre

> HILEAN BEHIN ORDAINTZEN DIREN ZERGAK TRIBUTOS DE PERIODICIDAD MENSUAL

Etxez etxekeko laguntza Asistencia domiciliaria

Hurrengo hileko 20. eguna
Día 20 del mes siguiente

> HIRUHILEAN BEHIN ORDAINTZEN DIREN ZERGAK TRIBUTOS DE PERIODICIDAD TRIMESTRAL

Azokak Ferias

**Hiruhilabeteko 2. hilabeteko 15. egunetik
3. hilabeteko 15. egunera**
Del día 15 del 2º mes del trimestre, al día 15 del 3º mes del trimestre

Terrazak Terrazas

**Hiruhilabeteko 2. hilabeteko 15. egunetik
3. hilabeteko 15. egunera**
Del día 15 del 2º mes del trimestre, al día 15 del 3º mes del trimestre

> SEI HILABETERO ORDAINTZEN DIREN ZERGAK TRIBUTOS DE PERIODICIDAD SEMESTRAL

Belena patioa Patio Belena

**Ekainak 1 - Uztailak 7 /
Urriak 1 - Azaroak 10**
1 de junio - 7 de julio /
1 de octubre - 10 de noviembre

1.2. Ordaintzeako borondatezko epearen azken eguna edo ordainketa helbideratuta egiteko eguna baliogabea izanez gero, hurrengo egun balio duena luzatuko da. / En el caso de que el último día del periodo voluntario o el día de cobro por domiciliación sea inhábil se trasladará dicha fecha al siguiente día hábil.

1.3. **Hobariak** (Eskera epea, urtarriletik aurrera):
Bonificaciones (Plazo de solicitud a partir de enero):

Ondasun Higiezinen Zerga:
Impuesto Bienes Inmuebles:

a. Hirigintza, eraikuntza eta higiezinen promozioko enpresei.
Empresas de urbanismo, construcción y promoción inmobiliaria.

b. Familia ugariak.

Familias numerosas.

c. Bizigune edo ASAP programa (berria)./ Programa Bizigune o ASAP (nuevo).

d. Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobaetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak (berria).

Sistemas de aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar u otras energías renovables (nuevo).

Jarduera Ekonomikoen Zerga:
Impuesto Actividades Económicas:

a. 2. zergaldia amaitu ondorengo lehen bost urteetan./ Durante los cinco años siguientes a la finalización del 2º período impositivo.

b. Enplegua sortzen dutenei.
Generadores de empleo.

Ibilgailuen gaineko Zerga:
Impuesto de Circulación IVTM:

a. Historikoak / Históricos.
b. Elektrikoak eta híbridoak.
Eléctricos y híbridos.

c. Familia ugariak.
Familias numerosas.

Hondakin bilketaren tasa:
Recogida de residuos:

a. Egoera ekonomikoa.
Situación económica

TRIBUNA

Alderdiaren iritzia



Zenbat gehiago haz daiteke Tolosa?

San Estebanen etorkizuna oso lotua dago etxebizitza berriekin. Bada, zergatik erabaki dugu etxebizitza berrien kopurua 450era jaistea? Biziagunen eskakizunak entzuteaz gain, badirelako herri mailako beste kezka batzuk ere.

Amarotz, Iurremendi, San Cosme eta San Damian... San Estebanekoak gehituta, ia 1.000 etxebizitza berri eraikiko dira Tolosan datozen urteetan. Horri gehitu behar zaizkio une honetan Tolosan hutsik dauden etxeak: 250 inguru. 2.000-3.000 pertsonaz ari gara hizketan.

Tolosak, ordea, ezin du populazioa esponentzialki hazi. Orografía mugatua izateaz gain, zerbitzuak eskaini behar ditugu, eta udalak ere baditu bere mugak. Beste eragin batzuk ere sortzen ditu inguruko herriean: azken urteetan, igo egin da Tolosako biztanleria, eta eskualdeko herri txikiakoa jaitsi. Tolosan ere gertatzen da fenomeno hori: Alde Zaharra husten ari da, eta berriagoak diren eremuak betetzen. Oreka behar dugu. Etxebizitza-beharra dago eta, bai, eraiki behar da, baina tamainan, eta herri eta eskualde mailan oreka bilatuta.



Aurrekontu garaia

Urte amaiera aurrekontu sasoia da edozein instituziotan. Datorren urtea irudikatzeko eta hura ahalbidetuko duen tresna nagusia diseinatzeko unea da.

Zortzi ekarpenean zehatz eta egingarri helarazi dizkiogu EH Bilduko Udal Gobernuari datorren urteko aurrekontu proiektua aberastu asmoz. Tartean, 365 egunetan zehar irekita egongo litzatekeen 24/7 ikasgela bat; larunbatetako azoka suspertzeko gazteei zuzendutako bono kanpainai berezi bat; eta Santa Clara – Zumardi Txikiko eremuaren beharrei erantzuna emango liekeen proiektu baten idazketa gauzatzea.

Udal Gobernuaren partetik gure proposamenekiko hitz onak jaso bai, baina aurrekontuetan isladatutako konpromezu zehatzak gutxi. Lanean jarraituko dugu egin ditugun proposamenak epe motzean ez bada, epe ertainean egikaritu daitezten.

Un año más, hemos hecho propuestas concretas y realizables para tratar de enriquecer el proyecto de presupuestos del Ayuntamiento de Tolosa. Propuestas, a nuestro entender, necesarias y urgentes. Hemos recibido buenas palabras como respuesta, pero mínimos compromisos presupuestarios. Seguiremos trabajando para hacer posible a medio plazo lo que no es posible a corto.



San Esteban

Aldizkari honek, tolosar guztiendiruarekin ordaindua, 150 hitz baino ez dizkit ematen udal politikako edozein gai azaltzeko. Euskaraz eta gaztelaniaz egin behar duzu, tolosarrek menperatzen dituzten bi hizkuntzak, denek ulertzea nahi baduzu. Absurdoa. Prest egongo al da gobernu-taldea irizpide hori aldatzeko eta oposizioko alderdiei leku gehiago emateko? Bitartean, hizkuntza telegrafikoa.

La falta de vivienda en Tolosa es muy grave. Solo nos queda San Esteban. Si el equipo de gobierno no cambia los criterios que maneja para este lugar, la frustración será grande en sus vecinos, los propietarios de empresas, huertas y terrenos y en muchos tolosarras.

Construir solo 450 viviendas impide la iniciativa privada y sin esta no habrá nueva urbanización. Mantener el feria y Bonberenea es condamar a este barrio a la situación de abandono actual. No, así no habrá vivienda pública para alquiler social, tampoco habrá vivienda nueva en venta. ¿Otros 20 años perdidos? Más realismo, más responsabilidad.



OParitu KULTura



ZINE BONOA
BONO CINE
10 saioko bonua 30 €
20 saioko bonua 35 €
30 saioko bonua 40 €



ESZENA BONOA
BONO ESCENA
7 emanaldi 30 €



Urtarrilak 10, 20:00, Leidor. Antzerkia (Cas): **ALMACENADOS.** Urtarrilak 11, 12:00 eta 16:00, Leidor. Musikala (Eus): **GOAZEN.** Urtarrilak 17, 20:00, Leidor. Antzerkia (Eus): **OSCARRA OSCARRENTZAT.** Urtarrilak 18, 18:00, Leidor. Bertsolaritza (Eus): **ATARIA BERTSO JAIALDIA.** Urtarrilak 24, 20:00, Leidor: **ISILTASUNETIK.** Urtarrilak 31, 20:00, Leidor. Musika: **EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA, EDUARDO MOCOROA.** Otsailak 7, 19:00, Leidor. Bakarrizketa (Eus): **ANTTON TELLERIA, NI-NI-NI.** Otsailak 14, 20:00, Leidor. Antzerkia (Eus): **MIÑAN.** Martxoak 7, 20:00, Leidor. Musika: **SOL BAND.** Martxoak 14, 20:00, Topic. Musika: **SAGEL TALDEA: URA GARBIDEAN.** Martxoak 21, 20:00, Leidor. Antzerkia (Eus): **AMAK.** Martxoak 28, 20:00, Leidor. Dantza: **HAATIK DANTZA KONPAINIA: OTS.** Martxoak 29, 11:30 eta 16:00, Leidor. Haur-ikuskizuna (Eus): **PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS.** Apirilak 4, 20:00, Leidor. Antzerkia (Eus): **KAMIKAZ TALDEA, RENATA.** Apirilak 11, 20:00, Topic. Musika: **TOLOSAKO UDAL MUSIKA BANDA.** Apirilak 30, 20:30, Leidor. Bakarrizketa (Cas): **LUIS ZAHERA.** Maiatzak 9, 20:00, Leidor. Musika: **MUSIKENE BIG BAND.** Maiatzak 16, 20:00, Leidor. Antzerkia (Eus): **ARIZONA.** Maiatzak 23, 20:00, Leidor. Dantza: **OSA MUJIKA.** Maiatzak 30, 20:00, Topic. Musika: **DON INORREZ.** Ekainak 7, ordua zehazteke, Leidor. Dantza: **DANTZA TAILERREKO EMALDIA.**